

## Otsailaren 21a, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna


### 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 33,1ek euskara dute ama-hizkuntza

Otsailaren 21a [Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna](#) izendatu zuen Unescok 1999an. Haurrak 3 urte bete arte etxean jasotzen duen hizkuntzari deitzen zaio ama-hizkuntza. Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bultzatzea du helburu ama-hizkuntzaren nazioarteko eguna ezartzeak, hau da, munduko herri guztiak darabiltzaten hizkuntza guztiak babestea.

[Gazteen Euskal Behatokia](#)k, Euskadiko gazteei dagokien informazio gaurkotua zabaltzeko eginkizunari erantzunik, Euskadiko gazteen ama-hizkuntzari edo lehen hizkuntzari buruzko datuak aztertu ditu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2016an eginiko [VI. Inkesta Soziolinguistikoa](#) hartu du oinarri.


Euskadin, euskara da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen heren baten ama-hizkuntza (% 33,1). Ehuneko horren baitan, bi egoera bereizten dira: 3 urte bete arte etxean euskara baino entzun ez dutenena, hau da, gazteen % 20,0rena; eta bi ama-hizkuntza (euskara eta gaztelania) dituztenena, hau da, gazteen % 11,1ena.

EAEko biztanleria osoari dagokionez (16 urtetik gorakoei), euskara ama-hizkuntza dutenen ehunekoa gazteena baino apalagoa da: % 23,5.



1991tik 2011ra, hau da, 25 urteko epean, euskara ama-hizkuntza duten gazteen ehunekoa % 20,4tik % 33,1era igo da.

**Euskara ama hizkuntza duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen bilakaera (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, 2016ko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak oinarri hartuta*